

Euskara guztia non kabitzen da? Non daude jasota euskarazko miloika hitzak?  
Non topa ditzakegu behar ditugun hitz zehatzak?

Euskaltzaindiaren Hiztegian, Egungo Euskararen Hiztegian, Orotariko  
Euskal Hiztegian, Elhuyar Hiztegian, Euskalermen edota Egungo Testuen  
Corpusan edota...?

Euskarazko hiztegiek A-tik Z-ra gure hitzen errenkada osatzen dute. Euskarazko  
Testuen corpusak hitz horien erabileraren erakusleihoak dira.

Aurten, euskararen egunaren harira, gure hiztegiei egin diegu so.

Hiztegi bat hartu eta G hizkitik zabaldu dugu. Errenkadaren nahiko hasieran **gaza**  
hitzak gure begiak kolpatu ditu

### **gaza**

1 iz. Kotoizko edo zetazko ehun mehea.

2 iz. Zauriak garbitzeko eta kidekoetarako erabiltzen den ehun zati  
sarea.

Tupustean, xehea zena larritu da eta **gaza** hitza **Gaza** bihurtu zaigu: gazazko  
zapirik gabeko Gazako ospitalak, ospitalik gabeko Gaza: gazazko zapia eta Gazako  
zapia elkartu ditugu gure gogoetan.

Eta hitzen errenkada etengabeko jario batean askatu dira hiztegitik gure begien  
aurrean:

gabezia, gainbehera, gaitz, gaitzespen, gaizki, gaizkide, gaizkile, galarazpen,  
garbiketa, garrasi, garrats, gatibu, gehiegikeria, gelditu, genozidio, gerla,  
ghetto, gizaki, gizarte, gizateria, gobernu, gogaitu, gogoeta, gogorkeria,  
goibeltasun, goizalde, gordin, gorpuzki, gorroto, gose, gotortu, gu, guda,  
gudari, gupidagabe, guraso, guretu, gutxitu... Gaza, Gernika...

Hiztegia itxi eta testuetan bilatu dugu gure hitza.

Gure begiak harrapatu rik gelditu dira olerki honetan:

***Lainoaren azpian***

Gandua.

Egunak **gaza** jantzi du.

Mundua desagertu da.

Itsasoa entzuten dut

han

urrunean.

Lanbroa atepetik sartzen da espazio oro betez.

Inbasioa da.

Ezerezaren erdian

berde deigarriko elastikoa.

Harrapatutako beste gizaki bat.

Ziri-ziri ari du euria

indarrez dator eguna

itsurik goaz

norabide barik

urratsez urrats

koreografia abangoardistak sortzen.

Goizalde Landabaso (2015). ***Babesarako kopia***. Elkar

(eta, gaur, Goizalde ere Gazaz ari zela iruditu zaigu)

2023ko Euskararen egunean egindako gogoeta/ariketa.